

**2005EKO UZTAILAREN 13AN SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hamahiru

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila eta bost.

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

BILDUAK

Lehendakaria: Pello Garaialde Goikoexea, Beasaingo ordezkaria

Ordezkarriak: Jose Mari Aranburu, Altzagako ordezkaria
Jasone Aranburu, Aramako ordezkaria
Rosa Goñi Jaca, Ataungo ordezkaria
Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkaria
Prudencio Mujika Albisu, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Kepa Goenaga Alikostes, Lazkaoko ordezkaria
Vicente Garmendia Martinez, Legazpiko ordezkaria
Jose Mari Lasa Sarasola, Legorretako ordezkaria
Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkaria
Jose Luis Ormazabal Garmendia, Ordiziko ordezkaria
Jose Lorenzo Murua, Ormaiztegiko Udala
Jon Agirre Aburuza, Segurako ordezkaria
Jon Ormazabal Berasategui, Zegamako ordezkaria
Antonio Garcia Agirre, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: J. Ignacio Irastorza Garmendia, Gaintzako ordezk.
Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezk
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Iñigo Izagirre Erauskin, Gabiriko ordezkaria
Xabier Ariztimuño Iparragirre Idiazabalgo ordezkaria
Iñaki Mendia Izagirre, Legazpiko ordezkaria
Angel María Mujika Goya, Mutiloako ordezkaria
Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziko ordezkaria

Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Peio González Argomaniz, Urretxuko ordezkaria
Damian Garmendia Etxabe, Zaldibiako ordezkaria
Fco Javier Toquero Miguel, Zumarragako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran parte hartzen du, ahotsarekin, baina botorik gabe, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Sasieta Mankomunitateko zerbitziburua.

1.- AURREKO AKTAK. 2005eko otsailaren 2an egindako akten berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- HONDAKINEN PREBENTZIOARI BURUZKO KONPROMISOA

Lehendakariak ondorengo erabaki-proposamena egin dio Batzorde Errektoreari:

"Sortzen ditugun hondakinak baliatzeko eta deusestatzeko lanak oso garestiak dira alderdi guztietatik begiratuta, hau da, ingurumen, ekonomia, eta jakina, gizarte arloak kontuan hartuta, Horretaz gain, etengabe hazten ari dira gizarte aurreratuetan sortzen diren hondakin kopuruak; horregatik erronka guztiz konplexu eta larriari erantzun beharra dago.

Hondarrak nola eta zenbat sortzen ditugun ekoizpeneko eta kontsumoko eredu baten adierazgarri dira; eredu hori bistan da desegokia eta erasotzailea dela, baina behin eta berriz erortzen gara horretan, eta kosta egiten zaigu inguruarekin eta geure buruarekin jokabide adeitsuagoak eta eraginkorrakoak hartzea. Halako jokamoldeak ikasitakoak dira, eta geure kulturaren sakonki sustraituta daude, baina, horrexegatik ikasitakoak direlako, uste osoa daukagu aldatu egin daitezkeela.

Administrazioaren maila desberdinetako erakundeak, Europako erakundeetatik hasita, jakitun dira ingurumena zaintzen ez duen gizartea ez dela lehiakorra ez ekonomiaren ikuspegitik, eta are gutxiago gizarte ikuspegitik. Horrek azaltzen du zergatik ari diren bakarka bideratzen prozesu iraunkoragoetara jotzen duten politika desberdinak, hondakinei buruzkoa barne. Arlo horretan, prebentzioa hondakinak egokiro kudeatzeko premisa eztaba daezina izaten hasita dago.

Europako agiri ugari adierazten digute zein neurri hartu behar ditugun baliabideen kontsumoak ingurumenean dituen eraginak murrizteko, esate baterako Europar Batasunaren Ingurumen Arloko Seigarren Ekintza-Programak (2002-2012). Programa horrek proposatzen du orokorki murriztea sortzen ditugun hondakin kopuruak, prebentzio estrategiak erabilita, hau da, baliabideak egokiago erabiliz, eta ekoizpen nahiz kontsumoko eredu iraunkoragoetara joz. Era berean, COM (2001) 264-Europar Batasuneko Garapen Iraunkoraren aldeko Estrategiak ezartzen du erakundeak eraberritu beharra dagoela, kontsumitzaileen ohiturak aldatzera bideratuta, betiere.

Aurrekoen ildo beretik, baina prebentzioaren arazoari zehazki helduz, COM (2003) – *“Hondakinen prebentzio eta erreziklatze arloetan estrategia tematiko baterantz jotzea”* izeneko agiriak azpimarratzen duenez, hondakinen kudeaketa on batek batera erabili behar ditu prebentzioa, erreziklatzea, energia berreskuratzea eta hondakinak deusestatzea.

Begi bistan dago aipatutako printzipioak eta estrategiak aplikatzeak berarekin dakarrela, hondakinen prebentzio politika eraginkorra izan dadin, gizarte osoak zuzenean parte hartzea *“.. jarrerak aldatzea lortuko duena, bai etxeko erabiltzaileena bai ekoizleena bai ekonomiako beste eragileena ere”*. Horregatik behar da gizarte, ekonomi eta erakunde eragile guztiek parte har dezaten, erantzukizun konpartituaren printzipioa sendotuz.

Esparru horren barruan, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Prebentzioari buruzko Dekalogoak printzipio hauek ezartzen ditu: Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko Plan Orokorra (aurrerantzean Hondakin Plana soilik) garatzeko eta ezartzeko prozesuan parte hartu izan duten gizarte, ekonomi eta erakunde eragile guztien artean lortutako adostasun printzipio orokorrak. Prebentzioari buruzko dekalogo hori jardunaldi batean adostu zuten aipatu eragileek eta Espainiako eta Europako prebentzio arloko aditu nagusiek, 2004ko abenduaren 16an prebentzioari eta erreziklatzeari buruz Donostian izandako jardunaldian, hain zuzen ere.

Jakitun gara prebentzioak eginkizun nagusia jokatu behar duela Hondakin Planak Gipuzkoako hondakinen kudeaketaz adierazitako estrategia guztien artean; horregatik, Sasieta Mankomunitateak beharrezkotzat jotzen du bere egitea Prebentzioari buruzko Dekalogoaren barruan dauden neurriak.

Horiek horrela, Lehendakariak proposatuta, Sasieta Mankomunitateko Batzorde Errektoreak,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Bere egitea **Gipuzkoako Hiri Hondakinen Prebentzioari buruzko Dekalogoaren** barruan dauden neurriak, erabaki honetako **I. Eranskin** gisa doazenak, hain zuzen ere.

Bigarren.- Lurralde Historikoko gizarte, ekonomi eta erakunde eragile guztiei dei egitea Dekalogoaren espirituarekin bat egin dezaten, **II. Eranskinean** ageri den Hondakinen Prebentzioari buruzko Konpromisoa hartuz, eta eskatzea horren berri eman diezaioten Sasieta Mankomunitateari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuari.

I. ERANSKINA

HONDAKINEN PREBENTZIOARI BURUZKO DEKALOGO

Sasieta mankomunitateak badaki jakin, gure eredu sozio-ekonomikoa aldatu eta eredu iraunkorrago baterantz jotzeko, tarteko izan behar dutela eta esku hartu gizarte, ekonomi eta erakunde eragile guztiek; horregatik EAEko administrazio maila desberdinetan elkarlanean, konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Bere gain hartzea hondakinak sortzearen inguruko prebentzioa **lehentasunezko helburu** gisa Gipuzkoako gizarte osoaren erantzukizun konpartituaren ikuspegi batetik begiratuta, Gipuzkoako Hiri Hondakin Plana garatu eta ezartzeak eskatzen duen bezala.

2.- Bere **indarrak koordinatu eta batzea**, hartara, prebentzioari emango zaion tratamendua koherentea izan dadin Hondakin Plana garatzeko ezarri diren programetara bideratutako baliabideekin.

3.- Bere barne funtzionamenduan hondakinak sortzearen inguruko **prebentzio programak ezartzea** eta laguntza ematea Hondakin Plana garatu eta ezartzerakoan hondakinak murriztu, berrerabili, erreziklatu eta konpost egitearen emaitzak hobetu ditzaketen esperientziei.

4.- **Ingurumen informazio eta heziketako kanpainak areagotzea**, kontsumo ildoak aldatzeko, prebentzioa bultzatzeko eta gaikako bilketan eta erreziklatzean parte hartzea sustatzeko. Kanpaina horiek zatika zuzenduko zaizkie gizarteari, eta mezu desberdinak emango dira maila ekonomikoa, gizarteratze maila, lanekoa, adina, eta abar kontuan hartuta. Horretarako, soziologiako azterketak egingo dira, populazio zati edo sektore horien jarrera eta jokaera desberdinen berri jakiteko.

5.- **Teknika, lege eta zerga alderdietako tresnak** aztertzea, prebentzio arloan lan egiteko, ekodiseinua eta hondakinak jatorrian gutxitzea bultzatzearen.

6.- Sistema bat ezartzea kudeaketa erakundeetatik aparte, prebentzio arloko helburuak zenbateraino betetzen diren, horren **jarraipena** egiteko, adierazle egokiak erabilita, hala nola, sortutako hondakinen osaera eta kopurua.

7.- **Neurri ekonomikoak** ezartzea prebentzio arloko lanen alde egiteko, eta baliabideen premiarik gabeko kontsumoa nahiz hondakin sorrera handiagoa zigortzeko.

8.- Hondakinak **berriro erabiltzea bultzatzea**, helburu hori izango duten sailkapen planta espezializatuen bitartez.

9.- **Berriro erabili eta erreziklatzearen** printzipioak ezarriko zaizkie Hondakin Planari elkartutako tratalekueetatik datozen hondakinei.

10.- **Zabor tasa aldagarriak** ezartzeko aukera aztertzea, gaikako bilketa prozesuetan parte hartzeko saritzeko.

II. ERANSKINA

HONDAKINEN PREBENTZIOARI BURUZKO KONPROMISOA.

Eredu sozio-ekonomikoa aldatu nahi bada haren iraunkortasuna hobetzeko behar diren jarraibide eta printzipioei jarraituz, orduan beharrezkoa da gizarte eragile guztiek nor bere arloan esku har dezaten, erantzukizun partekatuaren ikuspuntutik begiratuta esku hartu ere. Horiek horrela, eta garapen iraunkorraren aldeko konpromiso irmo eta egonkor bat ezartzeko asmoz, **Prebentzioari buruzko konpromisoa** izenpetzen dutenek beren gain hartzen duten ondorengo printzipioak errespetatzea.

1.- Prebentzioa **lehentasunezko helburutzat** hartzea Gipuzkoako gizarte osoaren erantzukizun konpartituaren ikuspegi batetik begiratuta, Hondakin Plana garatu eta ezartzeak eskatzen duen bezala.

2.- Barne funtzionamenduan hondakinak sortzearen inguruko **prebentzio programak** ezartzea, eta laguntza ematea hondakinak murriztu, berrerabili, erreziklatu eta konpost egitearen emaitzak hobetuko dituzten esperientziei.

3.- Bere arloan ingurumen **informazio eta heziketako ekintzak** gauzatzea, kontsumo ildo arduratsuak bultzatzeko eta prebentzioaren alde egiteko.

4.- **Antolakuntza eta araugintzako** bitarteko berariazkoak ezartzea, bere gizarte eta ekonomi ingurua prebentzioan sar dadin.

5.- **Sektoreen arteko koordinazio** bideak ezartzea garapen iraunkorreko prebentzio eta sustapen programetan parte hartzearen alde egiteko."

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- LEHIAKETA IREKIA: baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onetsi eta Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua lehiaketa bidez kontratatze deialdia:

Ezagutzera eman dira, Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua lehiaketa bidez kontratatze xehetasunak, hala nola:

- Helburua: Ontzien bereizte eta sailkapen zerbitzua
- Kontratatze era: lehiaketa irekia
- Lizitazio prezioa: 479.440 euro/urt
- Ontzi kopurua: 2.700 tona/urteko
- Kontratuaren iraupena: 2 urte (+2)
- Erabilzaileak: 6 mankomunitate (325.000 biztanle)
- Jatorria: edukiontzi horia + garbiguneak + beste batzuk
- Errendimendu eskakizuna: %85
- Sailkatu beharreko materialak: PEAD, PET, PEBD, OP, galtzairua, aluminioa, brik, kartoia, beira.

- Adjudikazio irizpideak:
 - Kalitate teknikoa: 45 puntu
 - Proposamen ekonomikoa: 45 puntu
 - Hobekuntzak: 10 puntu
- Adjudikazio prozesua hiru fasetan egingo da:
 - a) Plantako kontrol eta Segimendu batzordea: Diputazioak eta Legazpiko planta erabiltzen duten 6 mankomunitateek osatzen dute.
 - b) Mankomunitateko Kontratazio-mahaia
 - c) Mankomunitateko Batzorde Errektorea

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua lehiaketa bidez kontratatzeko baldintza agiriak onartzea.

Bigarren. Deialdia egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Eskaintzak aurkezteko epean 15 egunekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4.- EUFALEBA BATZORDE NEGOZIATZAILEAREN IZENDAPENA: urtero langileen ordezkariekin lan hitzarmenari buruz negoziatzeko negoziatio-batzorde baten izendapena.

Lehendakariak proposatu du, Batzorde Exekutiboa izatea, urtero langileen ordezkariekin lan hitzarmenari buruz negoziatuko duena.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- HONDAKIN BERDEEN TRATAMENDUA: GFAk hondakin berdeen tratamenduaren finantzaketa amaitzean hartu beharreko konponbidea.

Ezagutzera eman da, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi duela, aurrerantzean ez dela arduratuko hondakin berdeen tratamenduaren finantzaketaz.

Hondakin berdeen tratamendu zerbitzua orain arte Diputazioak finantzatu du. Zerbitzuak bi atal barneratzen ditu: adarrak eta belarra txikitzea eskualdea bakoitzean izendatutako toki batean (normalean zabortegia), Ormaiztegiko plantara garraiatzea eta bertan konpost bihurtzea.

Adjudikazioduna Ormaiztegiko Konposgune, S.L. izan da hasera haseratik. Tratatu dituen kopuruak honako hauek izan dira:

1999-2000: 1.800 Tona
 2001-2003: 2.200 Tona
 2003-2004: 5.200 Tona

Gutxigorabehera 1.000 kg. adar eta belar 600 kg. konpost bihurtzen dira. Beste modu batera esanda, 50 kg. adar eta belar 30 kg. konpost zaku bat bihurtzen da. Zaku bakoitzak 7,096 € balio du.

Egoera honen aurrean bi aukera daude:

- Sasieta Mankomunitateak berak tratamendu zerbitzuaren kostua bere gain hartzea. Seguraski kopuruagatik lehiaketa publikoa atera beharko litzateke.
- Ormaiztegiko konpost plantara adarrak eta belarra eramaten duenari Konposgune S.L. enpresak bezeroari kobratzea eramaten duen kantitatearen arabera, konpost zakuak salduz.

Adierazi da, datuak falta direla jakiteko zerbitzu horrek urte bukaeraino zenbaterainoko kostua izango duen. Hau jakin ondoren, hurrengo Batzar Errektorean hartuko da erabakia.

6.- MANKOMUNITATEKO FINANTZAKETA SISTEMA ETA HELBURUA:

Egun emandako zerbitzuak finantzatzeko sistema berri bat ezarri eta zerbitzu berriak emateari buruzko eztabaida.

Egungo finantzaketa eredua honako hau da:

- Mankomunitateak herritarrei zerbitzua ematen die.
- Mankomunitateko udalerriek dagozkien tasak ezarri eta herritarrei kobratzen die.
- Udalerriek Mankomunitateari ekarpenak egiten die, Mankomunitatearen jardueratik ondorioztatutako defizita estaltzeko.

Finantzaketa eredua berraztertzeke arrazoiak:

- Zerbitzuen hobekuntza, bilketa selektiboa eta berziklapenarekin erlazionatutako zerbitzuak (arropa, pilak...)
- Erronka berriak (konpostari buruzko edukinontzi marroia...)
- Zerbitzu berarekiko, udalerriek ezarritako tasen artean desberdintasun handia.

Estatutuen errebisioari eskatuz Mankomunitateak jasotako eskaerak:

- Olaberriko Udala (Osoko Bilkura 04-03-25): estatutuak aldatzeko eskaera.
- Goierriko herri plataformak (04-11-26): biztanleriaren arabera, ekarpenak kalkulatzeko eskaera.
- Ezkio-Itsasoko Udala (04-12-23): biztanleriaren arabera.
- Alzagako ordezkariak Batzordean egindako proposamena (04-09-22): estatutuak aldatzeko eskaera.

Egun udal ekarpenak kalkulatzeko sistema:

- Mankomunitateko estatutuen 14 artikuluan zera ezartzen da: urtero zerbitzuko kostuaren azterketa egin behar dela, kostuak era honetan sailkatuz:
 - a) Kostu finkoak: biztanle kopuruaren arabera.
 - b) Kostu aldakorak: kostu aldakorretan udalherri bakoitzak duen partizipazio portzentaiaren arabera.

- Egungo egoera: proportzioan zerbitzuen kostua txikiagoa da biztanle gehiago dituzten udalerrietan eta horregatik ekarpena era txikiagoa da.

Egungo ekarpenen sistemaren ondorioak ondorengo tauletan ikus daitezke:

	Actual	Por habitante	Diferencia	
MUTILOA	17,563	4,837	-12,725	-72%
OLABERRIA	54,566	27,380	-27,186	-50%
GAINTZA	7,708	3,925	-3,784	-49%
ZERAIN	13,272	7,666	-5,606	-42%
ALTZAGA	6,274	4,046	-2,228	-36%
EZKIO-ITSASO	24,583	17,067	-7,516	-31%
ARAMA	7,131	5,050	-2,081	-29%

	Actual	Por habitante	Diferencia	
ITSASONDO	22,900	17,158	-5,741	-25%
GABIRIA	17,527	13,447	-4,080	-23%
ORMAIZTEGI	43,739	36,325	-7,414	-17%
SEGURA	42,114	37,541	-4,573	-11%
ATAUN	50,458	46,060	-4,398	-9%
ZEGAMA	43,597	39,549	-4,048	-9%
ZALDIBIA	48,899	45,968	-2,931	-6%

	Actual	Por habitante	Diferencia	
LEGORRETA	42,280	41,709	-571	-1%
LAZKAO	154,955	154,060	-895	-1%
ORDIZIA	274,339	272,647	-1,692	-1%
IDIAZABAL	60,455	62,488	2,033	3%

	Actual	Por habitante	Diferencia	
URRETXU	181,802	202,766	20,965	12%
BEASAIN	338,756	374,988	36,233	11%
LEGAZPI	246,837	265,589	18,752	8%
ZUMARRAGA	290,002	309,489	19,486	7%

Biztanleriaren arabera ekarpenak egiteak dituen abantailak:

- Banaketa solidariogoa

Biztanleriaren arabera ekarpenak egiteak dituen alde txarrak:

- Ez ditu kontutan hartzen merkataritzak, industriak eta zerbitzu sektoreak duten eragina.

- Eztabaida azkenean, ekarpen berria onartu ez onartu udalerrri bakoitzak egun egiten duen ekarpenaren baitan egingo da.

Eztabaida honetan kontutan hartu beharrekoak

- Udalerriek bere bizilagunei hobeto atenditu ahal izateko mankomunatzen dira, udalerrri bakoitzak, berak bakarrik emango ezin izango lukeen zerbitzu bat emateko.
- Mankomunitateak zerbitzua ez die Udalei ematen, herritarrei baizik.
- Garrantzia duena ez da Udal bakoitzak zenbaterainoko ekarpena egin behar duen, baizik eta zerbitzua emateagatik herritarrek zenbait ordaindu behar duten.

Finantzaketa eredu berriaren proposamen bat egin nahi zaio mankomunitatetari:

- Mankomunitateak zerbitzua bizilagunei ematen die (orain arte bezala).
- Mankomunitateak zerbitzuak emateagatik tasak ezartzen ditu eta zuzenean bizilagunei kobratzen die.

Finantzaketa eredu berriaren abantailak:

- Zabor ziklo osoa emateko aukera dago.
- Solidaritatean oinarritutako eredia da: familia bakoitzak, jarduera bakoitzak, tasa berdina ordaintzen du, non kokatuta dagoen kontutan izan gabe.
- Eskualdeko ikuspegia duen eredia da.
- Eztabaida beste esparru batean legoke: bizilagunek zenbait ordaindu behar dute eta ez udalek zenbait ordaintzen duten.
- Udalek ez lukete mankomunitateari inolako ekarpenik egin behar.
- Tasak mankomunitatean dauden udalerrietako ordezkariak, gehiengo absolutuarekin onartuko dituzte.
- Banakako tasak eta sortutako kantitatearen arabera tasak aplikatzeko aukera ere egongo litzateke.

Finantzaketa eredu berriak antolakuntza aldetik eskatuko lukeena:

- Zerbitzu publikoak ez du behar herritarren aldetik zerbitzua jasotzeko eskaerarik edota borondatezko harrera berezirik eskatzen. Zabor-bilkerta zerbitzua jasotzeko ez "zerbitzua emateko eskatu behar" eta kasu honetan ez dago "abonaturik".
- Tasak gehienak banketxeko helbideratze bidez kobratzen dira eta gaineratikoek banketxetan egiten dute diru sarrera. Beraz, harrera bulegorik ez da behar.

Finantzaketa eredu berria martxan jartzeko honako hau beharko litzateke:

- Tasak kobratzeko aplikazio informatikoa (merkatuan asko daude aukeratzeko)
- Bulego birtuala (web) kontsultetarako eta "on line" eragiketetarako
- Administrari 1+ Administrari laguntzaile 1. ohiko hardwarekin
- Inspektore 1 (lehen 2-3 urtetan)

Finantzaketa eredu berria dela eta, Sasieta mankomunitateko eskuduntzak honako hauek dira:

- Araudi-eskuduntza: tasak ezartzeko, kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza fiskalak egiteko eskuduntza.
- Zerga eta finantziario eskuduntza: zergak ezarri eta exijitzeko, zergak kobratzeko eta ordenantzak onartzeko..

- Nahitaezko egikaritze eta zigortzaile eskuduntza: apremioko bide administratiboa erabili dezake eskubide publikoko zorrak exekutika bidez biltzeko.

Hau dena kontutan izanda, aho batez erabaki da, azterketa ekonomiko sakon bat egitea finantzaketa eredu berriari buruz.

Beasaingo ordezkariak eskatu du solidaritate aitzakia ez erabiltzea aipatu den guztia bultzatzeko, zeren eta agian udalerrri batzuei merkeago aterako litzaidake zerbitzuak mankomunatu gabe ematea.

PREMIAZKO PUNTUA

Bildutakoek gehiengo absolutuarekin onartu dute, IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESERAKO 15/1999 Lege Organikoa betetzeari buruzko puntua tratatzea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

- Segurtasun dokumentua, izaera pertsonala duten datuen fitxategiak eta segurtasun maila aurrikusten Arautegia dituen onartzea.
- Segurtasun arduraduna, Enrike Enparantza Ormazabal jaunari izendatzen da eta bere ordez Iñaki Erauskin Urretabizkaia.

Onetsitako Arautegia honako hau da:

SASIETA MANKOMUNITATEAN IZAERA PERTSONALEKO DATUDUN FITXATEGIAK SORTU, ALDATU ETA BALIOGABETZEKO ARAUTEGIA.

ARRAZOI AZALPENA

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13 15/1999 Lege Organikoko (DBLO) 20. artikulua Administrazio Publikoen fitxategien sorkuntza, eraldaketa edo ezeztapena Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorraren bitartez baino ezingo dela egin dio. Era berean, DBLOren lehen xedapenak fitxategien arduradun diren Administrazio publikoei hauen sorkuntzarako xedapena onartzea edo dagoeneko indarrean dagoena Legearen beraren aurreikuspenei egokitzea agintzen die.

Araudi honen helburua **Sasieta Mankomunitatean** izaera pertsonaleko datudun fitxategien sorkuntza eta eraldaketa da.

I. KAPITULUA

SASIETA MANKOMUNITATEAREN SORKUNTZA BERRIKO FITXATEGIAK

1. Artikulua

Izaera pertsonaleko datuak eduki edo prozesatzen dituzten Sasieta mankomunitateko fitxategi automatizatuak honako hauek dira:

1. Kontaktuak.
2. Kontabilitatea.
3. Hornitzaileak.
4. Ordezkarriak.
5. Komunikazioa.
6. Bezeroak.
7. Ikastetxeetako bisitak.
8. Konpostaia.
9. Curriculumak.
10. Pertsonalaren gestioa.

II. KAPITULUA

SORKUNTZA BERRIKO FITXATEGIAK

2. Artikulua

- Fitxategia: **Kontaktuak**.
- Deskripzioa: Mankomunitateko kontaktuen gestiorako fitxategi nagusia.

a) Helburua: Mankomunitateko kontaktuen gestioa eta Mankomunitateko ihardueren informazio bidalketa.

b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna edo bere lege ordezkarria.

c) Jasoketa prozedura: Paper formularioak eta erlazio kontraktualak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa:

-Identifikazio izaeradun datuak: izena eta abizenak.

-Parte hartzen duen Erakunde/Enpresa.

e) Datu uztea: ez da aurrikusten.

f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Oinarritzkoa.

3. Artikulua

- Fitxategia: **Kontabilitatea**.
- Descripción: kontabilitatearen gestiorako fitxategi nagusia.

a) Helburua: Kontabilitateko gestioa.

b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna edo bere lege ordezkarria.

c) Jasoketa prozedura: Erlazio kontraktuala.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen eta banketxe datuen fitxategia:

- Izena
- Abizenak
- IFZ/NAN
- Helbidea.
- Telefonoa.
- Banketxeko datuak.
- Datu ekonomikoak.

e) Datu uztea: ez da aurrikusten.

f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

4. Artikulua

- Fitxategia: **Hornitzaileak.**
- Deskripzioa: Hornitzaileen gestiorako fitxategi nagusia.

a) Helburua: Hornitzaileen gestioa.

b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna edo bere lege ordezkaria.

c) Jasoketa prozedura: Erlazio kontraktuala.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen eta banketxe datuen fitxategia:

- Izena
- Abizenak
- IFZ/NAN
- Helbidea.
- Telefonoa.
- Banketxeko datuak.
- Datu ekonomikoak.

e) Datu uztea: ez da aurrikusten.

f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

5. Artikulua

- Fichero: **Ordezkarriak.**
 - Descripción: Mankomunitateko Batzorde Errektorea osatzen duten ordezkarien datuen fitxategi nagusia.
- a) Helburua: Mankomunitateko Batzorde Errektorea osatzen duten ordezkarien datuen fitxategia, bileretara deitzeko eta beraien herriei dagozken gaiei buruz tratatzeko.
- b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna edo bere lege ordezkaria.
- c) Jasoketa prozedura: Adierazpen edo formularioak
- d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen eta banketxe datuen fitxategia:
- Izena
 - Abizenak
 - IFZ/NAN
 - Helbidea.
 - Telefonoa.
- e) Datu uztea: ez da aurrikusten.
- f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.
- g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.
- h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

6. Artikulua

- Fitxategia: **Komunikazioa.**
 - Deskripzioa: Mankomunitateko ihardueren komunikazioaren gestiorako fitxategi nagusia.
- a) Helburua: Mankomunitateko ihardueren komunikazioaren gestioa.
- b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna edo bere lege ordezkaria.
- c) Jasoketa prozedura: Adierazpen edo formularioak.
- d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen eta banketxe datuen fitxategia:
- Izena
 - Abizenak
 - IFZ/NAN
 - Helbidea.
 - Telefonoa.
- e) Datu uztea: ez da aurrikusten.
- f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

7. Artikulua

- Fitxategia: **Konpostaia.**
- Deskripzioa: Deskripzioa: Konpostaiaren gestiorako fitxategi nagusia.

a) Helburua: Konpostaiaren gestioa.

b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna edo bere lege ordezkaria.

c) Jasoketa prozedura: Paperezko formularioak eta posta elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen fitxategia, ezaugarri pertsonalak, egoera soziala, akademikoa eta profesionala, lanpostuko xehetasunak eta xehetasun ekonomikoak:

- Izena
- Abizenak
- Helbidea.
- Telefonoa.
- NAN.
- Etxebizitza mota.
- Familia osatzen duten lagunen kopurua.
- Etxebizitza dagoen tokia.

e) Datu uztea: ez da aurrizkusten.

f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

8. Artikulua

- Fitxategia: **Currículumak.**
- Deskripzioa: Pertsonalaren aukeraketarako fitxategi nagusia.

a) Helburua: Pertsonalaren aukeraketa.

b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Interesduna.

c) Jasoketa prozedura: Paperezko formularioak eta posta elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen fitxategia, ezaugarri pertsonalak, egoera soziala, akademikoa eta profesionala, lanpostuko xehetasunak eta xehetasun ekonomikoak:

- Izena

- Abizenak
- Helbidea.
- Telefonoa.
- NAN
- Herritartasuna
- Sexua
- Jaiotze lekua
- Jaiotze data
- Egoera zibila
- Formazio akademikoa
- Hizkuntzak
- Iharduerak eta zaletasunak
- Lan esperientzia

e) Datu uztea: ez da aurrirakusten.

f) Fitxategi arduraduna: Sasieta Mankomunitatea.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa.

9. Artikulua

- Fitxategia: **Pertsonalaren gestioa.**
- Deskripzioa: Pertsonalaren gestiorako eta soltadata-orriak egiteko fitxategi nagusia.

a) Helburua: Pertsonalaren gestioa eta soltadata-orriak egitea.

b) Hauengandik izaera pertsonaleko datuak jaso nahi diren pertsona edo elkarteak edo eta hauek ematera behartuta daudenak: Langilea.

c) Jasoketa prozedura: Kontratu laborala.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta izaera pertsonaleko datuen deskripzioa: Identifikazio izaeradun datuen fitxategia, ezaugarri pertsonalak, egoera soziala, akademikoa eta profesionala, lanpostuko xehetasunak eta xehetasun ekonomikoak:

- Izena
- Abizenak
- Helbidea.
- Telefonoa.
- NAN
- Herritartasuna
- Sexua
- Jaiotze lekua

- Jaiotze data
- Egoera zibila
- Formazio akademikoa
- Hizkuntzak
- Iharduerak eta zaletasunak
- Lan esperientzia
- Soldata-orriko datu ekonomikoak

e) Datu uztea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gizarte-segurantzako Altxortegi Nagusia.

g) Sarrera, zuzenketa, ezeztapen edo oposizio eskubideak lan dakizkiokeen zerbitzu edo batasuna: Sasieta Mankomunitatea, Martina Maiz kalea, behea, 20200 Beasain – Gipuzkoa.

h) Segurtasun neurriak: Altua.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, gaueko bederatzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.